HERNANIKO UDALAREN ETA URUMEA IKASTOLAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

ELKARTU DIRA

BATETIK: **XABIER LERTXUNDI ASTEASUINZARRA**, *HERNANIko Udaleko alkatea, hitzarmen honen ondorioetarako helbidea Hernaniko Udalean duela.*

ETA BESTETIK: **OIHANA ETXABE APEZETXEA**, *adinez nagusia, jakinarazpenetarako helbidea Larramendi kaleko 18an (Urumea Ikastola) duela eta bere NAN zenbakia 44166907-F dela.*

PARTE HARTU DUTE

XABIER LERTXUNDI ASTEASUINZARRAK HERNANIKO UDALA*ren izenean eta haren ordezkari gisa, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 r) atalak ematen dizkion ahalmenez baliaturik eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko ekainaren 17an hartutako erabakia betearazteko helburuz.*

OIHANA ETXABE APEZETXEAK URUMEA IKASTOLA*ren izenean eta ordezkaritzan, bertako zuzendari gisa otsailaren 28ko 29/2023 dekretuak ematen dizkion ahalmenez baliaturik eta Urumea Ikastolako Ordezkarien Organo Gorenak 2017ko ekainaren 12ko bilkuran hartutako erabakia betearazteko helburuz.*

Hernaniko Udala

EURONET 50/50 max

URUMEA IKASTOLA

HITZARMENAREN OINARRIAK

Apirilaren 2ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.8 artikuluan dioenez, Udalerrien eskumen propioa da "ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea eta defendatzea".

Oinarri horretatik abiatuta eta jakin badakitela natura eta ingurumena babeste aldera aurrekontu publikoaren, baliabide ekonomikoen eta baliabide naturalen erabilera arduratsua egin behar dutela, Euronet 50/50 max proiektuaren barne sartu nahi dute eta, horren bidez, ur beroan, berokuntza sisteman, argiztapenean eta bestelakoetan (ordenagailuak, etab.) beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromiso argia hartu, argindar- eta gas-energia kontsumoak murrizteari begira.

Horrela, bi aldeak akordio batera iritsi dira eta honako lankidetza hitzarmen hau idatzi dute jarraian zehazten diren konpromiso eta baldintza hauen arabera jarduteko, eta honako hau:

ADOSTU DUTE

1. Urumea ikastolaren konpromisoak:

a. *Ikastetxeak konpromisoa hartzen du erabilera arduratsuan hezteko eraikineko erabiltzaileak: haurrak, alegia. Irakasleek eta gainerako langileek klaseetan, edota lantaldeetan, emango dute heziketa hori.*

b. *Ikastetxeak erregistroa beteko du. Bertan islatuko dira eraikinean egiten diren ekintzak eta hartzen diren neurriak. Informazio hori Udaletxearekin partekatuko du. Gainera, energia aurrezteko bestelako neurriak ere proposatu ditzake.*

c. *Honako kide hauek ordezkatuko dute Urumea ikastola energia-taldean: Lehen Hezkuntzako 8 ikaslek, Eskola agenda 2030eko ordezkariak.*

2. Hernaniko Udalaren konpromisoak:

a. *Proiektuaren garapenerako beharrezko informazioa, dokumentuak (azken hiru urteetako kontsumo elektrikoaren datuak, eraikinaren planoak, berokuntza-sistemaren informazioa, datu teknikoak, etab.) eta neurketak egiteko beharrezko tresnak (termometroa, luxometroa...) eskura jarriko ditu.*

b. *Honako hauek ordezkatuko dute Udala energia-taldean: erakinaren mantentze-lanen arduraduna eta jasangarritasun teknikaria.*

3. Erreferentzia balioak

Proiektuan zehar lortutako aurrezpenen kalkulua egiteko, azken hiru ikasturteetako (2022/23, 2023/24 eta 2024/25eko) elektrizitate eta gas kontsumoak erabiliko dira erreferentzia gisa.

a. *Elektrizitatearen kasuan, lehendabizi fakturatutako kWh-ak (kontsumoa) hainbanatuko dira; hots, proportzionalki banatuko dira fakturak hilabete*

bakoitzean dituen egun kopuruaren arabera. Ondoren, hilabete bakoitzaren erreferentzia balioa kalkulatzeko, azken hiru urteetako balio hainbanatutako horien batez besteko aritmetikoa egingo da.

b. Gasari dagokionez, lehendabizi fakturatutako kWh-ak (kontsumoa) hainbanatuko dira; hots, proportzionalki banatuko dira fakturak hilabete bakoitzean dituen egun kopuruaren arabera. Ondoren, ordea, balio horiek normalizatu egingo dira. Izan ere, gasa berogailu sistemarentzako erabiltzen denez, kontsumoa itxuraldatu dezake urte hotz edo beroagoak. Hori ekiditeko erreferentzia balioak normalizatu beharra dago, gradu/egun haztapena eginda. Azkenik, hilabete bakoitzaren erreferentzia balioa kalkulatzeko, azken hiru urteetako balio normalizatu horien batez besteko aritmetikoa egingo da.

4. Erabilera eta funtzionamendu aldaketak.

Energia taldeak 1b. atalean aipatua datorren erregistroan jasoko ditu eraikinean gertatzen diren ordutegi edo erabilera aldaketak, adibidez, kanpo egituran, berogailu sisteman, edo beste sistemetan gertatzen direnak, aldaketa horiek kontsumoan izan dezaketen inpaktua ebaluatzeko helburuarekin. Beharrezkoa izango da orduan erreferentzia balioak aldaketen arabera eguneratzea.

5. Aurrezpenaren kalkulua

Eskudiruzko baliora bihurtuko dira argindar eta gas kontsumoetan lortutako aurrezkiak. Bi horien batuketa izango da aurrezpena (ekonomikoa). Kalkuluetarako kontuan hartuko da honako epe hau: 2025eko urritik 2026ko apirilara arte (biak barne).

a) Elektrizitate aurrezkiak kalkulatu

Lortutako energia aurrezpenak kalkulatzeko 3a atalean aipatutako erreferentzia balioak eta proiektuaren epean egindako kontsumoak alderatuko dira.

Lortutako aurrezki ekonomikoaren zenbatespena egiteko energia aurrezki horri horniketa bakoitzak kontratatuta dituen baldintzak aplikatuko zaizkio; hots, benetako kontsumoari aplikatutako berberak. Bestela esanda, alderatuko dira benetako gastua eta erreferentziazko baloreekin espero zitekeena.

b) Gasaren aurrezkiak kalkulatu

Lortutako energia aurrezpenak kalkulatzeko 3b atalean aipatutako erreferentzia balioak eta proiektuaren epean egindako kontsumoak alderatuko dira. Horretarako, hala ere, gradu/egun zuzenketa aplikatuko zaie, halaber, azken horiei ere. Alegia, lortutako energia aurrezpenak kalkulatzeko betiere zuzendutako balioak alderatuko dira, proiektuaren epean izandakoak erreferentziazko balioekin.

Aurrezki ekonomikoa estimatzeko, energia aurrezkiari horniketa bakoitzari dagozkion kontratuaren baldintzak aplikatuko zaizkio; hots, benetako kontsumoari aplikatutako berberak. Bestela esanda, alderatuko dira benetako gastua eta erreferentziako baloreekin espero zitekeena.

6. Aurrezpenaren banaketa

Aurreztutako zenbatekoa honela banatuko da:

- % 50 Urumea ikastolak proposatu eta energia taldean adostutako jarduketa edota erosketa batean erabiliko du Udalak.

- % 50 Udalak erabiliko du energiaren arloko hobekuntzak egiteko Urumeako ikastolan.

7. Hitzarmenaren hasiera eta iraupena

Hitzarmen hau baliozkoa izango da 2025/2026ko ikasturtea amaitu arte. Hitzarmena berritu daiteke bi aldeek nahi izanez gero eta beti ere Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan zehazturikoari jarraikiz.

8. Hitzarmenaren jarraipen batzordea

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan zehazturikoari jarraikiz, Hitzarmen honetan zehaztutakoaren jarraipena egin eta proiektua ezartzeaz arduratuko den jarraipen batzorde bat osatuko da, energia-taldea izendatuko dena. Bi aldeetako ordezkaritza proportzionala izango du.

Eta horrekin ados daudela erakusteko, parte-hartzaileek agiri hau eta beharrezko ale guztiak sinatu dituzte, dagozkion ondorioetarako, aipatutako lekuan eta egunean.

Hernanin, 2026ko otsailaren 25ean.

HERNANIKO UDALA
Xabier Lertxundi
Asteasuinzarra

URUMEA IKASTOLA
Oihana Etxabe
Apezetxea